

MARIA MARKOTEGI SARIAK 2023



NARRAZIO LABURRA . POESIA . KOMIKIA . BOOKTUBER




PARTE HARTZAILEAK:

Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

SAILAK: Lehiaketak lau sail izanen ditu: narrazio laburra, poesia, komikia eta booktubea.

KATEGORIAK: Lehiaketan honako kategoria hauek bereiziko dira:

- A) LHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.
- B) LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena.
- C) DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.
- D) DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.



LANAK AURKEZTEKO EPEA: Lanak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 5ean bukatuko da. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean.

LANAK AURKEZTEKO MODUA: Lan guztiak goitzen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira antolakuntzak banatutako ereduan idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen goitizena, saila eta kategoria. Ezin izanen dira lanak multzoka aurkeztu, hau da, lan bakoitzak bere gutun-azala eta bere plika izanen ditu. Lanak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako bulegoan aurkeztuko dira.

Beste aukera bat da lanak Internet bidez bidaltzea **sakana-mank.eus** webgunetik. Webgunearen hasierako orrian esteka bat paratuko da, **Euskara zerbitzuko lehiaketak** izenburuaz. Bertan izena eman ahal izanen da formulario bidez, eta oinarriak kontsultatu ahal izanen dira ere bai.

Booktubek USB batean entregatuko dira edo, bestela, Wetransfer bidez bidaliko dira **euskara1@sakana-mank.eus** helbidera. Egileen datuak aparteko fitxategi batean bidaliko dira.

BALDINTZAK:

- 1) Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- 2) Gaia librea izanen da booktubeean izan ezik. Horietan irakurritako euskarazko liburu bat aurkeztuko da. Liburuaren titulua, egilea(k) eta argitaletxea aipatuko dira betiere.
- 3) Ez dira bertsopaperak ametituko.
- 4) Lanek ondoko luzera izanen dute:

	NARRAZIO LABURRA	POESIA	KOMIKIA	BOOKTUBEA
A	Orrialde 1 gutxienez 4 orrialde gehienez	10 lerro gutxienez 50 lerro gehienez	Orrialde 1 gutxienez 2 orrialde gehienez	
B	2 orrialde gutxienez 5 orrialde gehienez	20 lerro gutxienez 50 lerro gehienez	Orrialde 1 gutxienez 3 orrialde gehienez	
C	3 orrialde gutxienez 6 orrialde gehienez	30 lerro gutxienez 80 lerro gehienez	2 orrialde gutxienez 4 orrialde gehienez	1,5 minutu gutxienez 2 minutu gehienez
D	4 orrialde gutxienez 7 orrialde gehienez	40 lerro gutxienez 80 lerro gehienez	2 orrialde gutxienez 5 orrialde gehienez	1,5 minutu gutxienez 3 minutu gehienez

- 5) Narrazio laburrak eta poemak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira. 12 puntuko hizki-tamaina erabiliko da.
- 6) Komikiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztuko dira. Ez dira onartuko ordenagailuz egindako lanak. Aholkatzen da DinA3 tamainakoak egitea, ongi ikusi ahal izateko testuak.
- 7) Lanak bakarkakoak izanen dira, booktubek izan ezik. Horiek binaka egin ahal izanen dira. Ez dute zertan biek agertu bidean.

SARIAK:

Aurkeztzen diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira hogeita zortzi sari izanen dira:



	Kategoria	Saria	Sakanako liburu denda batean erabiltzeko txartela
A	LHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	2 sari	50€ (bakoitza)
B	LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	2 sari	70€ (bakoitza)
C	DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	2 sari	90€ (bakoitza)
D	DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	2 sari	110€ (bakoitza)

SARI BANAKETA: Ahal izatera, sari banaketa ekitaldi publiko batean eginen da. Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoa betetzeko, adingabeen kasuan, parte-hartzaileen gurasoek edo tutoreek onartu egiten dute parte-hartzaileei argazkiak ateratzea sari banaketa ekitaldian Sakanako Mankomunitateko euskarri komunikatiboetan zein hedabideetan zabaltzeko. Horretaz gain, baimena ematen dute saritutako bideoak sari banaketan plazaratzeko. Adinez nagusiak direnen kasuan, haiek beraiek izanen dira baimena emango dutenak.

ARGITALPENA: Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egileen izenak adieraziz.


EPAIMAHAI: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango lirarteke. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

DATUEN BABESA: Sakanako Mankomunitateak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Orobat, pertsona fisikoen babesari dagokionez, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoa beteko da.

Sakanako Mankomunitatea da lehiaketa kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Parte hartzaileen guraso zein tutoreek eskubidea dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko —zuzenak ez badira— eta horiek ezabatzeko erregistro orokorrera edo egoitza elektronikora joaz. Adinez nagusiak direnen kasuan, haiek beraiek izanen dira baimena ematen dutenak eta beren eskubideak gauzatzeko dituztenak. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria sakana-mank.eus webgunean daude.

MARIA MARKOTEGI SARIAK: PLIKA

Izenburua	
Goitizena	
Izen-abizenak	
Helbidea	
Posta-kodea	
Herria	
Telefonoa	
e-posta	
Ikastetxea	
Ikasmaila	



markots 22

ANTOLATZAILER

Mank
s a k a n a 